

Juan Mari Lekuona zenaren omenezko liburu bat aurkeztuko du gaur Euskaltzaindiak Oiartzungo Udalalarekin batera, bere sorterrian argitaratua. Gisa horretan omendu nahi du Euskararen Akademiak eta Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa batzordeak euskaltzain oiartzuarraren oroimena, zendu zenetik hirugarren urtea betetzear dela. Bestela esanik, batzordeko kideek hamabost urtez batzordeburu izan zenari eskainiriko omenaldia da, Oiartzun herriko udalaren laguntzaz argitaratua.

Partaide izan dira omenaldi horretan Xabier Lete, Andu Lertxundi eta Pello Esnal idazleak, Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordeko Jean Haritschelhar batzordeburua eta Ana Toledo euskaltzainak, Jon Kortazar eta Gorka Aulestia batzordekideak eta Lourdes Otaegi, batzordeko idazkaria eta liburuaren edizioaren arduraduna.

Joan Mari Lekuonaren bizi-urratsak oroitzen ditu liburuak, bai euskal idazle ezagunen idatzizko lekukotzen bidez, bai eta senide eta lagunen eskuzabaltasunari esker osatu den argazki bilduma zabalaren bidez ere; era berean, haren ikerlanaren eta sorkuntza literarioaren azterketa baloratzailari ere lotu zaizkio ikerketa batzordeko kideen lanek.

Juan Mari Lekuona hurbiletik (1927-2005) liburuak xede garbia du: idazle, irakasle eta literatura ikerlearen bizitzaren, nortasunaren eta obraren alderdi jakingarri zenbaiten hurbileko lekukotza jasotzea. Helburu horrekin bildu dira zortzi idazleen luma trebeak eta nork bere ikuspegitik aurkeztu ditu idazle oiartzuarraren pertsonalitatearen alderdiak, gertutik harturiko argazki idatzien gisan eta afektuaren fokoen argitan ezarriak.

Hurbileko erretratu horiek edukiaren arabera antolatu dira liburuan, argitalpenean partaide diren bi erakundeen aintzin-solasen ostean. Horrela, lehen zatian nagusi dira egile oiartzuarraren alderdi biografikoak eta jendartekoak oroitzen dituzten lekukotzak; bigarrenean, aldiz, haren ikerketa eta sorkuntza literarioari eskainiriko idatziak bildu dira, eta beste dokumentu interesgarri batzuk ere erantsi zaizkio bigarren atal honi.

Alea irekitzen du Xabier Lete poetaren lumak eta Juan Mari herrikideari eskainiriko “Juan Mari Lekuona, maisu eta lagun” testuan oroitzen ditu beren harremanaren zertzelada jakingarri zenbait. Ondotik datorren Gorka Aulestiaren “Juan Mari Lekuona gogoan” idazlanak, bizikizun pertsonalez gain, Lekuonaren lehen liburuaren sorrerarekin, *Mindura gaur* izenekoarekin erlazonaturiko Añorgako egunkari pertsonal argitaragabearen zenbait atalen iruzkinez hornitzen du bere idazlana.

Andu Lertxundiren “Juan Mariren eskolan” eta Pello Esnalen “Juan Mari Lekuona, bertsozale eta bertsozaritzaren eragile” idazlanek berriz, Joan Mariren izateko eraren eta une kritiko zenbaiten testigantza ematen dute, apaizgaitegian, irakaskuntzan nahiz poesigintzaren eta bertsozaritzaren esparruan elkarrekin izandako bizipenen harian taxutuak.

Liburuaren bigarren atala Lekuonaren ibilbide profesionala eta literarioari eskainia da. Hala, Jean Haritschelharrek “Juan Mari Lekuona euskaltzain” izenburua eman dion idatzian, Euskaltzaindian eginiko lana hartu du mintzagai. Ana Toledo euskaltzain eta euskal literatura irakaslearen “Euskal literaturaren aztertzailea” lana, aldiz, ahozko euskal literatura liburuaren egileak euskal letren esparruan eginiko ekarpenaren balorazio akademikoa egiten du.

Bestalde, Jon Kortazar irakasleak Lekuonaren obra poetikoaren alorrari ekiten dio “Poeta da gaur mintzo zaizuen” izenburudun idazlan kritikoa eta, horretarako, Lekuonaren poesiaren ikerlanei ekarpen berria egiten dio: *Errota zaar maitea* kantu ezagunaren egileak Derioko Ikastegian 1983an emandako hitzaldi baten, “Ene mundu estetikoaz” deritzanaren iruzkin kritikoa. Poetak berak bere poetikaz eginiko hausnarketa didaktikoa den hitzaldi hori lehen aldiz argitaratu da ale honetan eta liburuaren ekarpen azpimarragarrietako bat da.

Derioko hitzaldiarekin batean, argitalpen honetan hemerotekaren anonimotasunetik errekuperatu da Joxe Auxtin Arrietak Juan Mari Lekuonari Oiartzun aldizkariarentzat 1988an eginiko elkarrizketa luzea. Literatura aditu oiartzuarrak une hartako euskal literaturaz zituen iritzien berri zabala irakur lezake irakurle interesatuak. Horien osagarri dator Juan Mari Lekuonaren bibliografia bilduma eguneratuaren zerrenda, liburuaren antolaketaz eta egituraketaz arduratu den Lourdes Otaegi Literatura Ikerketa Batzordearen idazkariaren eskutik osatua.

Juan Mari Lekuonaren poemak ezagunak egin dituzte abeslariak eta bere poema liburuak XX. mendeko euskal poesigintzan aipagarrienen artekoak dira. Ospatua da Manuel Lekuonaren lanari jarraituz ahozko literaturaren arloan egin zuen lanari esker, eta euskal idazleen inguruan egin zituen azterketak ere ekarpen ezin utzizkoak dira euskal ikasketen sistematizatuaren esparruan.

Horiek guztiak aho batez aitortuz, Literatura Ikerketa batzordeak, Xabier Lete, Anjel Lertxundi, Pello Esnal eta Joxe Auxtin Arrietaren laguntzaz, gorazarrea eskaintzen dio Joan Mari Lekuonari, harekin bizi izandakoa eta ikasitakoa oroitzuz, kontatuz eta hausnatuz irakurlearekin batean, eta haren ekarpen teoriko eta literarioaren balorazioa eginez.

Egitasmo honen sorburu izan den Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordea (LIB) 1992an sortu zen Juan Mari Lekuonaren proposamenez, literaturaren inguruko ikasketetan ziharduten irakasleen elkarlana sustatzeko eta proiektu bateratuak garatzeko.

Donostian, 2008ko azaroaren 14an
Lourdes Otaegi, Literatura Ikerketa batzordeko idazkaria eta liburuaren
edizioaren arduraduna